

## berriak

## ziri

## VICTORIA CAMPS

Idazlea



«Feminizatu egin behar da gizartea; emakumearenak soilik izan ohi diren balioak bere egin behar ditu»

LA VANGUARDIA

## ENRIQUE FRANCO

Espainiako Txirindularitza Itzuliko zuzendari nagusia



«Guk ezin dugu onartu poliziak taldeak atxilotzean sortuko litzatekeen eskandalua»

EL MUNDO

## PEDRO OLEA

Zinema zuzendaria



«Athletic zinema jenero baten gisakoa da, 'western'-aren gisakoa: aukera ematen du istorio ugari sortzeko, ia sail oso bat»

EL CORREO

## PEDRO SUBIJANA

Sukaldaria



«Ezin dut imajinatu sukaldari batek jaten ez gozatzea»

EL DIARIO VASCO

## hemeroteka

## DEIA

EDITORIALA  
1998ko abuztuak 6Hirugarren gradua  
eta bereizkeriazko  
laidoa

Duela aste batzuk, Alcala Mecoko presondegiko zuzendariak globo zunda bat bota zuen: Mario Conderi kartzelako hirugarren gradua aplikatzeko eskatu zuen. Bankari ohiari lau urte eta bi hilabeteko kartzela zigorra ezarri zioten, baina oraindik ere bost hilabete baino ez daramatza itzalean. Globo zundak eragindako erreakzioak, nonbait, ez dira behar bezain erabatekoak izan, bankari ohiaren erregimen horren abantailez gozatzen ari baita, era murriztuan bada ere. Ondorioz, hilabetero bi aste-burutan atera ahal izango da kartzelatik, hau da, urtean ehundik

gora egunetan, lehenago, behintzat, ez badu lortzen kartzela egoera hobetzea. (...)

Herritarrek, ziur aski, galdetuko dute kartzelako hirugarren gradua ematean denentzat irizpide bera erabiltzen ote den, edo irizpideak selektiboak izan eta aberatsei zein ospetsuei bakarrik eragiten ote dieten. Aplikazioan bereizkeriazko laidoak izan direlako salaketak egin dituzte erakunde politikoei eta sindikalei, eta, hortaz, pentsatzekoa da azken hori gertatzen dela. Hau da, lehen eta bigarren mailako presoak daudela, eta ebasle xumeei baino tratamendu hobea ematen zatela eskularru zuriko lapurrei, 600 milioi pezeta ostu badituzte ere, zeinak, bide batez esanda, oraindik ez diren agertu.

Horrelako erregimen irekiak ematea Kartzela Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiaren ardura da, hau da, Gobernu zentralarena. Horrela, azken batean, botere politikoa eraginik gabe uzten du erabaki judizial bat. Aplikazioa, aipatutako kasuetan bezala, hain eskandaluzkoa denean, ia ezin-

bestekoa da susmatzea politizata dagoela, neurriok gaizkileen gizarteratzea errazteko pentsatuta badaude ere. Ildo berean, *sensu contrario*, politikoa lirake beste preso batzuei, beharrezko baldintza guztiak bete arren, eta Gobernuak aldeko tratamendu bera ematen ez dielako, hirugarren gradua ukatzeko arrazoiak. Behin eta berrizkoak dira horrelako salaketak terrorismoari lotutako preso kasuan. Haiek ere eskubide berak baitituzte, teoriarik behintzat.

## Le Monde

EDITORIALA  
1998ko abuztuak 6Dilema  
Jospinentzat

Iraila abuztuak: oporren amaierarako eztabaida funtsezkoenetakoa bat piztu da gizarte kotizazioetan patronalari dagokion zatien ba-

lizko erreformaz Lionel Jospinek Edmond Malinvaud ekonomialariari eskatu zion txostena argitaratzean. (...)

Patronalaren erakundeek kargu horien murrizte orokorra eskartzen dute; izan ere, diotenaren arabera, haien pisuak eragiten du enpresaburuek zalantzak izateko kualifikazio eta ordainketa maila apalenekoak kontratatzeko orduan. Sozialistak, garai batean, neurri horren aldekoak izan ziren, betiere harekin batera lanaldia murrizten bazen; baina, azkenean, 1997ko programan jaso bezala, patronalaren kotizazioen erreforma hobetsi dute. Kotizaziook egun, soldatetan daude oinarrituta, eta horrek eskulan-enpresak zigortzen ditu; xedea da dedukzio hori berriz orekatzea, balio erantsia eragiten duten jardueren kaltetan. (...)

Gizarte segurantzaren finantzatzeko egungo sistema sendotu behar al da, edo, bestela, errotik auzitan jarri? Dilema hori dute Lionel Jospinek eta Martine Aubryk, Dominique Strauss-Kahn arretatsu begira dutela. Finantza ministroak tasa profesionalaren jaitsiera iragarri zuen uztailaren 22an, hura ere soldatetan oinarrituta; horrela, lehenatasuna eman die aurrekontu-marjinei enpresei laguntzeko. Kargen jaitsiera, beraz, enplegurako kredituen berrantolatketak baino ezingo luke finantzatu; lehenago ere haietaz baliatu ziren 35 orduen eta gazteen enpleguaren kasuan. Aubryk, ordeago oso ondo daki kotizazio patronalaren erreforma, zeina oraindik ere aldeztzen baitu, ezin dela aski izan kualifikazio gutxiko lanaren kostuaren arazoa konpontzeko. Enplegua sustatzeko, karga fiskal al dira arindu beharrekoak, edo, bestela, karga sozialak? Oporretatik itzultzean, bulegoan Malinvauden txostena aurkitzean, Jospinek ezinbestean hautatu behar du.

IDIGORAS Y PACHI / EL MUNDO



— Jan ahal izateko oilo bat lapurtzeagatik nago hemen. Ez didate hirugarren gradua eman nahi, berriz gosea pasatu beharrean banago ere...

## zuzendaritari

## «Bakea eta hitza»

Sinestezina da Zuzenbidezko Estatu batean, Espainian, Zuzenbidezko Estatu balitz bezala agertzen baita, iritzi ofiziala, hau da, Gobernuarena ez bezalakoa duen egunkari bat ixtea, *Egin* egunkaria alegia, oso faltsuak diruditen akusazio batzuetan oinarrituta.

Nire herrian, diktadura komunistaren garaian, debekatu egin zuten egunkarietan iragarkiak argitaratzea, espiek haien bitartez mezu sekretuak transmititzen zituztelako aitza-kiaz baliatuta. *Egin* egunkaria ixteak erabat haserretu nau. Adierazpen askatasuna Espainian benetakoa izateko, egunkari hori berriz irekitzeko eskatzen dut, oso garrantzitsua baita Euskal Herriarentzat.

Blas Oterorekin batera, hungarierara itzuli zuenak bezala, «Bakea eta hitza eskatzen dut!».

● Lajos Asztalos

(Errumaniako hungariar minoriako kazetaria)

## Iruñeko udaltzain espainolak

Uztailaren 22, asteazkena. Iruñeko Alde Zaharreko San Frantzisko enpa-

rantza. Goizeko 9:15etan. *Egin* egunkaria eta adierazpen askatasunaren aldeko pankarta zintzilikatzen. Bat-batean udaltzainak, motorrak eta guzti. NANak eskatu eta batek ezetz dio, ez dugu ezer gaizki egin eta. Euskaraz hitz egiteko eskatu diet. Beste kotxe patruilla bat. Badator *mandoa* (euskaraz ere hitz egokia, bai) eta NANA eskatu dit, euskaraz. Saiatu naiz berarekin hitz egiten, baina alferrik. «Mira. *Que sepas que se euskera pero no voy a hablar contigo en euskera*». Eta hemendik aurrera erderaz mandoak.

Bai, komisaldegian, detentatuta. Nik euskaraz. Eta gure *mandoa* haserre. Bere lankideekin begirune eza omen da nik euskaraz egitea.

Ziegan dagoeneko. Orain ultimatuma. Datuak eman edo *chinchillaserd*, Polizia Nazional espainolaren egoitzara.

Datuak eman eta gure *eskubideak* irakurtzerakoan (hau paradoxal), euskaraz egiteko eskatu diot, nire oinarritzko eskubidea baita. «*Ya te he dicho que no voy a hablarte en euskera*», mandoak berriro, eta udaltzain guztiak ados. «*Bueno, firmas o que*», beste udaltzain batek.

Berriro kalean, berriro Euskal Herrian.

● Patxi Lopez Abasolo

IRUÑEA

## Salaketa egin...

... oihartzunik ez dugunon ahots-goragailu garrantzitsuenak itxiaz dituzte eta. Salaketa *Egin*, euskararen alde horrenbeste egin duten bi komunikabide desagertarazi nahi dituztelako. Salaketa *Egin*, agintarien iritzia *bakarra* eta *ukaezina* dela pentsatzen ez dugunoi zigorra ezarri nahi izan baitigute.

Salaketa *Egin*, edonoren iritzia hedatzeko prest diren, izan diren eta izango diren *Egin* egunkaria eta irratia itxi dituzte eta.

Salaketa *Egin*, euskaldunon aurka edozer egiterik dagoela zabaltzen ari direlako PPkoak.

Salaketa *Egin*, *caudillokeriatan* dabilen epaile horrek langile mordoa pilik gabe utzi baitu inondik ere heltzerik ez dauden arrazoiak argudiatuz. Salaketa *Egin* eta lagundu *Egin*, behar baikaitu, behar baitugu.

Eskerrik asko *Egin* gure mezua eta salaketak orain arte zabaldu izan eta aurrerantzean ere zabalduko dituztelako.

*Egin* egunkaria euskaldunagoa izatea nahi dugun arren, bie eskerririk asko zaretzen modukoak izateagatik.

● Zigor Etxeburua Urbizu

(Donostialdeko EHEren izenean)